

## AMETS MAMITUA

(Zangozako Lore-Jokuetaruko eguna, 1987)

Amets egin dut. Ta ura dut orai  
Era zarrean adirazi nai.

Neskatxa bezin eder, zangar,  
Nere ametsa pompos sarrzeako  
Gurbil bat bikain, gaiñ-barne utreko,  
Landu idazu, urregin azkar.

### I *Ur ertzean*

Aragoi, Irati'z gaindikartua,  
Napar lurreko ibai autatua,  
Urdin, txairo, dama zeartuz,  
Euskal menditar atsez asca,  
Sorgin-ipuiez agitz betea,  
Ba-doa Zangozta musutuz.

Ene Zangozta!, esana dut, bai,  
Zure izena, goitiar, alai.  
Anitz makur-une zurizko  
Ibai zail orren altzoan koka  
Or zaude gozo, bizi-atsalka,  
Aur lizunkoiaren kideko.

Suge lepoa itxura dute,  
Zar izanikan oraindik gazte,  
Ezker-eskui daurkazun maldak;  
Muiño ta bizkar, landa ta zelai,  
Zugaitz artean gaztelu arrai,  
Lirain dira zure sorbaldak.

Bide pikosan apatz jarria,  
Emen naukazu zuri begia!  
Begiok, ez otoi, lausorik...

Ikus pozarren azpiko uri  
Egon-eziña, kabi urduri,  
Len-oraiñak mendez loturik.

Kulunkaz gorri gari-arloak,  
Ezin obetzko masti naroak  
Urruti-ertzean galduaz...  
Poxpolin pillak or dira, noizka,  
Eitztariaren oñaze-meta,  
Egari azkar aren sistaz.

Gari, mestura, ardo ta igali,  
Oroz duzu zuk gaifia estali;  
Birako txapar artean duzu  
Bizkor ta ugari abere-saldo;  
Zure semeak ba-dute naiko  
Jan-edana, uda ta negu.

Onez gaiñera, or dakusazkit  
—Zein eder diran ba ote dakit?—  
Zur-zerrak eta irin-erxeak,  
Pabriketako ke-zillo gurpil  
Ezin aseak aizetan bipil,  
Poz-azirik ustez barneak.

Jaiez musikak alaitzen dizu  
Jendea kalez ta basoz usu;  
Adorez sendo, lerden gorputza,  
Eliz ta etxe, moja ta praille,  
Kristoren legez alkarren maite,  
Eder daramazu bizitza.

Zangozta segail!, zuri eiotzen  
Emen nagotzu bertsoak ozen.  
Zuretzat bedi nere didar,  
Irrintzi bero, oiu-eztanda;  
Zuretzat nere biotz-zauskada,  
Oroz gaiñetik beti zangar.

Kondairan zeat zure izena  
 Beti izan zaigu argi, ozena.  
 Zaindari zeta mugan jarria;  
 Etaiz-mendesan maiz jasini arren,  
 Ezera iholaz, oi uri guren!,  
 Napar lokarriaz etsia.

Aragoitarrak maiz, aundi-mifiez,  
 Ibilli ziran zu artu naiez;  
 Baiña Adrian'go urak ba-daki  
 Zure semien bular sendoan,  
 Zure alaben odol beroan  
 Zer dagoen, oso ertsiki.

Orduan zure ikur erdian,  
 Lau taket txuriz panpox jantzian,  
 S. A. gaillen daramazkizu.  
 Lena duz amets, lena duz laztan,  
 Zure egifak ez dakit nolatan  
 Ospe-gaillur sizez aintzani.

Gerora ere napar lur barna  
 Elku zitzagun atzerritarra;  
 Espoz-Mina'kin zure semeak,  
 Xorta estuan bildurik lerdan,  
 Ezmenetxe berion zapal zituzten  
 Abbe prantxean gud-osteak.

Ibaiek pir-pir, zugaitz itzalez,  
 Zangotzak irra, sense leialez  
 Aldia or ordua arrsunika.  
 Kondaira zeat zabiltsa beti  
 Langille trebe, alai tx ametsi,  
 Bizitz-ontzian zimuz-ozka.

\*\*\*

Urregin bizkor, apail zadazu  
 Xixel txurikin gurbilla usu.  
 Baiña, ez, itxoin; ez apail, otoi.  
 Ba-daukat lendik barnean kutxa,  
 Or dut gordeko nere ametsa,  
 Bizitza zeat maitasun-oroi.

Igotz

## KANTUZ ETA ITXAROPENEZ

Ez eukan arek dirurik  
 ezta eukiteko  
     itxaropenik bere,  
 alan da guzti be  
     ez jakori aztu  
         aurterantza  
         joaten;  
 urrengo egun-sentiaren  
     argiagaz  
     beti sinisten eban  
     bezperako  
         illuntzietan,  
         betikotasunezko  
         goi-maitasunaren  
         susmoa  
         aurkitzeko  
         itxaropena  
         ekarten  
             eutsalako.